

Irakurzaletasuna bultzatzeko, elkarlana

- Topaguneak *“Irakurri, Gozatu eta Oparitu”* kanpainaren hirugarren edizioa aurkeztu du
- Herrietako Euskara Elkarteen, udal liburutegien eta liburu denden elkarlana sustatuko du, irakurzaletasuna sustatzeko asmoz
- Euskal Herriko 21 herritan gauzatuko da, hiru hilabetez

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoaren hirugarren edizioa aurkeztu du Bilbon. Irakurketa sustatzeko asmoz sortu den egitasmoa, Hego Euskal Herriko 21 herritan gauzatuko da, tokian tokiko euskara elkarten, udal liburutegien eta liburu denden elkarlanari esker.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko:

1. Irakurri

Lehenengo pausua irakurtzea da; euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere. Herriko **liburutegi publikora** joan, eta **euskarazko edozein liburu** maileguan hartzea besterik ez da egin behar. Kanpainak dirauen bitartean, euskarazko liburua hartzen duen bakoitzak **orri-markatzaile bat jasoko du opari**, ekimenean parte hartu zein ez. Horretarako, **25.000 markatzaile** egin ditu antolakuntzak.

Zein liburu aukeratu ez dakitenentzat, adinaren arabera sailkatutako **90 liburu gomendatzen dituen zerrenda** bat egongo da eskuragarri. Zerrenda hori Uxue Alberdi idazleak prestatu du, zenbait liburutegitako arduradunek egindako proposamenak bateratuz. Oraingoan ere, ehun liburuetatik **90 berberak izango dira leku guztietan, eta beste hamarrak aldatu egingo dira herri batetik bestera**, tokian tokiko interesen arabera.

Trabajo en equipo para fomentar la lectura

Topagunea presenta la tercera edición de su campaña *“Irakurri, Gozatu eta Oparitu”*

Promueve la colaboración entre Asociaciones de Euskera, librerías y bibliotecas municipales con el fin de fomentar la lectura

Se llevará a cabo en 21 localidades de Euskal Herria, durante tres meses

La Federación de Asociaciones de Euskera Topagunea ha presentado en Bilbao la tercera edición de la campaña *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* (lee, disfruta y regala). La iniciativa se desarrollará en 21 localidades de Euskal Herria, gracias a la colaboración de las Asociaciones de Euskera, bibliotecas municipales y librerías locales.

Como el mismo nombre sugiere, para participar en la campaña hay que dar tres pasos:

1. Leer

El primer paso consiste en leer; más concretamente, en leer en euskera. Sólo hay que acercarse a la biblioteca pública, y coger en préstamo cualquier libro en euskera. Mientras dure la campaña, e independientemente de si se participa o no, quienes pidan libros en euskera recibirán un marcapáginas de regalo. Para ello, Topagunea ha encargado 25.000 unidades.

Para quienes tengan dudas sobre qué libro elegir, habrá una lista de 90 libros recomendados, clasificados por edades. Esa lista ha sido elaborada por la escritora Uxue Alberdi, basándose en las recomendaciones realizadas por responsables de varias bibliotecas. Como el año pasado, esos 90 libros serán los mismos en todas las localidades participantes, y a ellos se añadirán otros diez que variarán en función de los intereses locales.

2. Gozatu

Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, noski, eta fitxa simple-simple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun... Fitxa hori beteta, liburuzainak deskontu txartela emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko

3. Oparitu

Azken pausua, iaz bezalaxe, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, bihotzeko azukre koxkorrari... edo, zergatik ez, norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, %25eko deskontua izango dugu liburu dendan euskarazko beste edozein liburu erosterakoan, edo %50ekoa Euskara Elkartearen kidea izanez gero.

Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi izan dugu: euskararen erabilera gozagarria sustatu nahi du Topaguneak, irakurteak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez.

Baina, bide batez, oso garrantzitsuak diren bestelako helburuak ere lortu nahi ditu Topaguneak ekimen honen bidez:

- Batetik, Euskara Elkartearen bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea
- Era askotako eragile publiko eta pribatuen elkarlana sustatzea, eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea
- Azkenik, ekimen honek ekarpena egin nahi dio euskarazko liburugintzari, liburuen ekoizpena eta salmenta bultzatuz.

Aurrekoetan bezala, egitasmoak bere webgune propioa dauka aurten ere. Bertan, liburu bakoitzaren inguruko iruzkin txiki bat aurkituko du irakurleak, eta gainera, beste webguneetan argitaratutako biografiak, bibliografiak, kritikak eta abar ikusteko loturak. Horrela, irakurleek aukera izango dute aukeratutako liburuen inguruko iritzi trukea egiteko. Hori guztia honako helbide honetan dago eskuragarri:

www.topagunea.org/irakurri

2. Disfrutar

Una vez leído el libro, como es lógico, habrá que devolverlo a la biblioteca, y rellenar una sencilla ficha: qué libro se ha leído, qué opinión nos merece... Una vez rellenada, el responsable de la biblioteca proporcionará al lector una tarjeta de descuento, para utilizar en las librerías concertadas.

3. Regalar

El último paso, no menos importante, será regalar otro libro: a una amiga, a un familiar, a la pareja... o, por qué no, a sí mismo. Con la tarjeta de descuento, tendremos en la librería una rebaja del 25% para comprar cualquier libro en euskera, o del 50% en el caso de los miembros de la Asociación de Euskera local.

El principal objetivo de la iniciativa es fomentar la lectura, y por ello se ha querido subrayar el lado placentero de la lectura en euskera: Topagunea pretende fomentar el uso y el disfrute del euskera, y no cabe duda de que tanto la lectura como el hecho de realizar (y recibir) regalos son experiencias muy gratificantes.

Además, Topagunea persigue otros objetivos con esta iniciativa:

- Por una parte, convertir a los socios de las Asociaciones de Euskera en usuarios/as activos/as de las bibliotecas públicas.
- Fomentar la colaboración entre agentes públicos y privados, y ayudarles a desarrollar redes de relaciones en euskera
- Por último, ayudar a la industria editorial en euskera, apoyando la producción y venta.

Como en ediciones anteriores, la iniciativa cuenta con su propio sitio web. En él, se pueden dejar opiniones sobre cada libro, y acceder mediante links a biografías, bibliografías y críticas publicadas en otras webs. De ese modo, los lectores tendrán la oportunidad de intercambiar opiniones sobre los libros que han leído. La dirección de la web es la siguiente:

www.topagunea.org/irakurri

Hasiera, Liburuaren Egunean

'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoa apirilaren 23an hasiko da, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Katalanek *Diada de Sant Jordi* delakoa ospatzen dute egun horretan, elkarri arrosak eta liburuak oparitzuz. Amaiera, berriz, uztailaren 24an izango du: izan ere, uda izaten da jendeak irakurtzeko denbora gehien duen tarte, eta ondorioz uda aurreko hilak oso egokiak iruditu zaizkigu liburu trukea sustatzeko.

Esan bezala, 21 Euskara Elkartek hartuko dute parte aurtengo edizioan, iaz baino lau gehiago:

- Araban: Basalarrina (Laudio)
- Bizkaian: Bai Esan (Santurtzi), Berbots (Erandio), Asapala (Mahatserría), Berbaro (Durango), Euskal Birusa (Ermua), Euskarabila (Basauri), Gurien Bai (Iurreta), Uhagon (Markina), Eixu (Zaldibar), Berrizko Udala
- Gipuzkoan: AED-Txatxilipurdi (Arrasate), Galtzaundi (Tolosa), Maxixatzen (Azkoitia), Zuhatza (Deba), Goierriko Euskal Eskola-Lazkao, Hitzaro (Ordizia)
- Nafarroan: Aizpea (Irurtzun), Garean (Lizarrá), Kima (Altsasu), Karrikaluze (Atarrabia)

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa 1997an sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 90 Euskara Elkartek osatzen dute. Elkartean zein Federazioaren beraren helburua euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea, eta sentiberatzea.

Día del Libro

La iniciativa 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' comenzará el próximo 23 de abril, Día Internacional del Libro. Como es sabido, en Cataluña se celebra en esa fecha el día de San Jordi, y se regalan rosas y libros. Se prolongará hasta el 24 de julio: sin duda, el verano es la época en la que más tiempo hay para leer, y por lo tanto, estos meses que le preceden pueden ser muy adecuados para regalar libros.

Como ya hemos dicho, serán 21 las Asociaciones de Euskera que participen en la campaña:

- ARABA Basalarrina (Laudio)
- BIZKAIA Bai Esan (Santurtzi), Berbots (Erandio), Asapala (Mahatserría), Berbaro (Durango), Euskal Birusa (Ermua), Euskarabila (Basauri), Gurien Bai (Iurreta), Uhagon (Markina), Eixu (Zaldibar), Berrizko Udala
- GIPUZKOA: AED-Txatxilipurdi (Arrasate), Galtzaundi (Tolosa), Maxixatzen (Azkoitia), Zuhatza (Deba), Goierriko Euskal Eskola-Lazkao, Hitzaro (Ordizia)
- NAFARROA Aizpea (Irurtzun), Garean (Lizarrá), Kima (Altsasu), Karrikaluze (Atarrabia)

La Federación de Asociaciones de Euskera Topagunea se creó en 1997, y reúne a 90 asociaciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa. El objetivo tanto de la Federación como de las asociaciones es promover el uso del euskera. Para ello, trabajan en varias áreas, tales como cultura, actividades de tiempo libre para jóvenes y niños/as, medios de comunicación locales, euskaldunización de entidades, sensibilización y mintzapraktika.